

3. Konpromiso Taldearen 4. Bilera

2019ko otsailaren 27a

.....

Bileraren helburua

I-laben kontzeptualizazioari eta gobernamendu ereduari buruz eztabaidatzea, hauteman diren adostasunak eta desadostasunak abiapuntu hartuta, alderdi bakoitzean sakondu eta akordioak zirriborratzen hasi ahal izateko.

Parte-hartzaileak

Koldobike Uriarte, Gotzon Bernaola, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, Itziar Solozabal, Elsa Fuente Do-Rosario, Mikel Barturen, Olatz Jiménez, Ana Viñals, Diana Franco, Aitzol Batiz, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Jon Abril, Diego Fernández, Itziar Calvo, Miren Arbelaiz, Arrate Arias.

Gai-zerrenda

Orain arte sortutako edukien aurkezpena

Itsaso Larramendik (TIPI) mapa bat aurkeztu du 3. Konpromiso Taldearen 2. eta 3. bilereetan landutakoan oinarrituta sortutako edukiekin. Puntu hauek biltzen ditu aurkezpenak:

1. Xedea
2. Lan daitezkeen gaiak
3. Formatuak eta euskarriak
4. Antolamendua: agente mota, martxan jartzea, lurraldetasuna, funtzionamendu arauak, baliabideak, egitura, egitura eratzen duten elementuak (nodoak, konexioak, sarea)

Ebaluazioa

3. Konpromiso Taldearen lan-prozesuak bere bide erdia gainditu duenez, ebaluazio txiki bat egin da, alde batetik, egindako lanaren garapena eta orain arte lortutako aurrerapenak baloratzeko; eta bestetik, zein gaitan sakondu behar litzatekeen eta zeini buruz erabaki behar litzatekeen hurrengo hiletan.

Enuntziatuak eta adibideak

Ane Abarrategik (TIPI) 4 enuntziatu aurkeztu ditu, I-lab izango den sare horren alderdi batzuk deskribatzen dituztenak, ondoren taldean eztabaidatuko direnak. Adierazpenekin batera, Ricardo Antónek (ColaBoraBora) benetako adibideak azaldu ditu, enuntziatuek deskribatzen dutena gauzatzeko zenbait modu argitzen dituztenak.

Gai hauek jorratu dituzte enuntziatuek:

1. Nodoaren eta proiektuaren arteko aldeak/antzekotasunak. Nodo bat proiektu bat da?
2. I-laben eskaintza nodoei. Zergatik nahi dute nodoek I-laben sartu?
3. Nodoen arteko harremana, koordinazioa eta komunikazioa.
4. I-laben eta Open Eskolaren arteko harremana. Zer eskaini eta zer eskatzen dio batak besteari?

Enuntziatu eta adibide osoak [dokumentu honen "Akta" atalean](#) daude.

Eztabaida

Jorratu behar diren gaiak buruz eztabaidatu eta balizko adostasunak eta estrategiak bilatzean datza.

Horretarako, gaiarekiko 4 jarrera edo rol ezartzen dira, ñabardurak, jarrerak, ikuspegiak, posibilitateak eta irtenbideak bereizteko balio dutenak.

Zoruan marraztutako matrize baten erdian enuntziatua jartzen da eta haren inguruan 4 jarrera edo balizko rol bereizten dituzten 4 lerro definitzen dira:

- Lorontzia, egungo egoeran eta arazoan sakontzen duena.
- Lorea, arazoa edo desadostasuna konpondu den etorkizuna kontatzen duena.
- Artaziak, gatazka-egoera bat agertu edo arrisku-egoerak edo arazoak xehatzen dituztenak.
- Ureztigailua, tirabira edo gatazka konpontzea ahalbidetu duten irtenbideei eta tresnei buruz mintzatzen dena.

Parte-hartzaile bakoitza, esan nahi duenaren arabera, koadranteetatik mugitu eta dauden jarreretatik mintzatzen da.

Ariketa hori 4 aldiz errepikatu da enuntziatu bakoitzarekin.

Eztabaidan jasotakoaren laburpena [dokumentu honen "Akta" atalean](#) dago.

Amaiera

Ixteko, data aldaketa eta Foro Irekirako planteamendua iragarri ditugu. Informazio gehiago helaraziko da hari buruz ekitaldiaren ezaugarriak zehaztu ahala.

Akta

Enuntziatuak eta adibideak

Hauek izan dira aurkeztutako enuntziatuak eta adibideak:

1/ Nodoak

· Enuntziatua:

I-lab lurraldetik banatutako zenbait nodok osatutako sare bat da. Bi nodo mota daude.

Herritarren parte-hartzearen arloko proiektu edo prozesu berritzaile baten inguruan eratzen diren nodoak, zeinetan zenbait agente ordezkaturik baitaude: agente adituak (kudeaketa teknikoaz eta errazteaz arduratzen dira), herritarrak agentea (parte-hartzea bultzatu eta sustatzen dutenak) eta erakunde agenteak (baliabideak jarri eta proiektuari segurtasun-esparru bat ematen diotenak).

Eta sarea koordinatu eta ezagueraren transferentzia eta proiektuentzako gutxieneko laguntza bermatzen ditu(zt)en nodoa edo nodoak. Nodo koordinatzaile(a)(e)k sarearen gutxieneko egiturari eusten dio(te)n bitartean, proiektuei lotutako nodoak sartu eta irteten dira, eta haien aktibitatea handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

· Adibideak:

· LA 27E RÉGION | Frantzia www.la27eregion.fr

Eraldaketa publikoko laborategia, Frantziako estatuko eskualdeei zerbitzuak eskaintzen dizkiena.

Zenbait programa, hala nola Territoires en résidence edo Les Eclaireurs (Esploratzaileak) bideratuago daude proiektu zehatzetara (antolamenduaren eraldaketa edo erronka zehatzak).

La Transfo programak Frantzia osoan laborategi sare bat abiaraztea bilatzen du, bakoitza testuinguru bakoitzaren beharrezan eta ezaugarrien arabera.

Superpublic, esparru neutral bat berrikuntza publikorako, estatu eta nazioarte mailan errepikatzea espero dena.

· PUNTOS DE CULTURA | Latinoamerika puntos.cultura.gob.ar

Herritarren kulturarako eskubidea (eskuragarritasuna eta ekoizpena) sustatzeko sare bat. Brasilen dauka jatorria eta ondoren Latinoamerikako beste herrialde batzuetatik zabaldu da.

Hainbat motatako guneren sarea, lurraldetik banatua. Espezializazioari, dimentsioari, parte-hartzaileei, baliabideei... buruzko zenbait kontu. Marka komuna. Ministerioak tipologiaren arabera jarritako baliabide ekonomikoak. Medialab bana izan behar dute guztiek (internerako sarbidea, av tresnak...). Nodo batzuek koordinazio eginkizunak daukate (gaiei buruzko koordinazioa edo eskualde mailakoa). Aldian behin topaketak egiten dira esperientziak trukatzeko.

2/ Sarea

· Enuntziatua:

I-labek nodoen arteko ezagueraren koordinazioa eta transferentzia bermatzen ditu teknikarien bitartez, zeinek sarea dinamizatu eta nodoen arteko topaguneak lortzen baitituzte.

Nodoen arteko komunikazio eta lankidetzak horrek ezaguera transferitu eta ikaskuntzak ateratzea ahalbidetzen du baina, halaber, estrategia eta plangintza elikatzen ditu, lankidetzan, I-laben beraren makro mailan.

- Adibideak:

- DECIDIM | Bartzelona decidim.org

Proiektua Bartzelonako Udalaren parte-hartze digitala hobetzeko plataforma digital gisa sortu zen eta transferitu eta beste edozein agente motak (beste administrazioek, elkarteek, kooperatibek...) erabil dezaketen plataforma bihurtzen ari da.

Metadecidim, Decidim garatu eta beste ingurune batzuetara transferitzeko komunitate ireki bat (elkarte gisa eratu berri dira).

Hitzarmen bat LocalRETekin Decidim Kataluniako beste administrazio batzuetara transferitzeko.

LID, erreferentziazko esparru fisiko bat komunitate horrentzat, berrikuntza demokratikoko lab baten modura ulertuta Fàbrica de Creació Fabra i Coats-en barruan.

- INNOVACIÓN CIUDADANA | Latinoamerika

www.innovacionciudadana.org

Zenbait motatako 21 laborategik osatutako sare bat, SEGIBek sustatutako Herritarren Berrikuntza programaren barruan.

Sareaz gain, hauek sustatzen dira: LABIC-ak (Herritarren Berrikuntzako Laborategiak, urtero herrialde batean egin eta 100 pertsona 10 proiekturen inguruan biltzen dituztenak); Herritarren Berrikuntzaren Mapa CIVICSekin (5.000 ekimen baino gehiago biltzen duena 17 herrialdetako 32 hiritan), egoitza programa Medialab Pradorekin sarera batzeko beste laborategi batzuk inkubatzeko, eta zenbait topaketa, hala nola #labmeeting edo CampusLAAAB.

3/ Baliabideak

- Enuntziatua:

I-labek nodoei laguntzen die, talde tekniko baten eta hornitzaile adituen sare baten bidez, zeinek ikuspegia, metodologiak, ezaguera, etab. ematen baitituzte, haien garapen ona eta sarean sartuta dauden proiektuen egiteko moduetako berrikuntza bermatzeari begira.

Halaber, I-labek dibulgazio eginkizuna ere betetzen du, herritarren parte-hartzearen arloko jardunbide berritzaileen inguruko jardunbide egokiak, ikaskuntzak eta kontakizunak irekian jarriz.

- Adibideak:

- BEHAVIOURAL INSIGHTS TEAM | Erresuma Batua

www.behaviouralinsights.co.uk

Gobernu-jatorriko enpresa, portaeraren zientziak eta teknologia bigunak kudeaketa publikoaren eremuan aplikatzen diharduena.

Askotariko eremuetan egiten ditu esperimentu edo saiakuntzak: zerga-bilketa, pentsio-plan, organo-emate edo bide segurtasunean.

Esperimentu hauek lau printzipiotan oinarritzen dira: Egizu Sinplea (aurretik zehazturiko aukerak, ahaleginak murriztea, mesuak sinplifikatzea); Egizu Erakargarria (arreta ematea, sariak eta zigorrak); Egizu Soziala (joerak seinalatzea, sareen ahalmena, konpromisoak erraztea); Egizu Garaiz (erabilgarritasunak kontuan izatea, epe laburreko ondorioak, parte hartzeko oztopoak identifikatzea).

· LAAAB | Aragoi www.laaab.es

Aragón Parteciparen demokrazia laborategia, gobernuaren bihotzean kokatua, sail guztientzat eta udalentzat zeharka lan egiten duena.

Zenbait arlo lantzen dituzte, hala nola parte-hartzea, gardentasuna, bistaratzea, hezkuntza hedatua, adimen kolektiboa, teknopolitika zein sareak eta mapak.

Zerbitzu eta jarduera hauek eskaintzen ditu: metodologiak eta akonpainamendua, ko-diseinu esparrua, parte-hartze eta boluntaritzako sare soziala, berrikuntza irekiko komunitatea (bloga), parte-hartze eskola, herritarren ekimeneen mapa (CIVICS) eta Toki Erakundeentzako Parte-hartze Plataforma.

· PARTICIPALAB | Madril medialab-prado.es/participa-lab

Madrilgo Udalaren adimen kolektiboko laborategi bat parte-hartze demokratikorako, Medialab Pradon kokatua. Hiru oinarri dauzka: Zuzeneko demokrazia + Tresna digitalak + Deliberazio prozesuak.

Parte-hartze prozesu hibridoek buruzko esperimentu jakinei ekiten diete, zeinak administrazioaren barruan testeatzeko baitira. Hauek jorratzen dituzte haien programetako batzuek: ikerketa eta esperimentazioa Decide Madriderekin; ekintza kolektiborako komunitateak, hala nola Coctell (narratioak eta hizkuntzak) edo Ciudad Decide (Decide Madrid-en lurraldearen arabera jarduera); proiektuen prototipoak egiteko deialdi irekia; deliberazio-demokrazia eta zozketa G1000rekin edo Hiriko Behatokiarekin.

· VTAIWAN | Taiwan info.vtaiwan.tw

Kontsulta irekiko prozesuaren prototipo bat, Taiwango Ministerio Digitalak martxan jarritakoa, gizarte osoak batez ere IKTen erabilerekin eta ekonomia digitalari lotutako gaiei buruzko eztabaida arrazional batean parte har dezan.

On-line eta off-line prozesuak errazten ditu (zenbait tresna erabiliz, hala nola vtaiwan.tw, pol-is edo Join, open space edo espazio irekiak, bilerak, hackathon-ak...), politikari hautatuak eta langile publikoak, zein herritarrak biltzen dituztenak.

PDIS dauka, Taiwango gobernuaren berrikuntza laborategia. Handik parte-hartze ofizialen sare bat sortu da, hileroko biltzen diren 70 ofizialek osatzen dutena, eta bertan Taiwango gobernuaren 32 ministerioak daude ordezkaturak.

4/ Open Eskola – I-lab harremana

- Enunziatua:

I-labek eta Open Eskolak elkarrekin lan egin eta koordinatuta osatzen dute elkar; Open Eskolak prestakuntzaren eta paketeen bildutako baliabide edo tresnen dibulgazioaren bidez parte-hartzearen kultura eskaini eta sustatzen duen bitartean, I-labek lagunduta esperimentatzeko esparru bat eskaintzen du.

- Adibideak:

- LABHACKER | Brasil labhackercd.leg.br

Esparru bat kongresuaren barruan herritarren proiektu berritzaileak, Brasilgo botere legegileari lotutakoak, lankidetzan garatzea sustatzeko. Politika herritarrei eta herritarrak politikari hurbiltzea.

Haren jardueretako bat Hacker Txikiak da, tailer interaktiboak 10-12 urteko haur taldeentzat, diputatuen ganberan egindako eguneroko lana ulertu eta bertan parte hartzeko (bozketen simulakroak, lege proiektuak...). Umeen Kontseilua programaren antzekoa izan liteke, baina hacker etika sartuz.

- BHERRIA | Euskadi bherria.eus

Programa hori herritar berrientzako agora gisa definitzen da, lankidetzaren publiko-sozialaren sustapenean ardaztuta.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Boluntaritzaren Euskal Kontseiluak bultzatzen dute.

Filosofia komun bat (eginez ikasi / ekintzako ikerketa / hausnarketa partekatua) zenbait dispositibori aplikatuta.

> Prestakuntza: Hausnarketa eta praktikako dimentsioa duten proiektu edo eremu zehatzei bideratutako edukiak.

> Laborategia: Berariazko formatua landu behar den gaiaren eta heltze egoeraren arabera, eragindako agente guztiak engaiatuz.

Eztabaida

Parte-hartzaileek eztabaidan emandako informazioa biltzen da hemen, proposatutako 4 enuntziatuen inguruan antolatuta.

1/ Nodoak

Enuntziatu hau hartu da abiapuntu:

<< *I-lab lurraldetik banatutako zenbait nodok osatutako sare bat da. Bi nodo mota daude.*

- *Herritarren parte-hartzearen arloko proiektu edo prozesu berritzaile baten inguruan eratzen diren nodoak, zeinetan zenbait agente ordezkatura baitaude: agente adituak (kudeaketa teknikoaz eta errazteaz arduratzen dira), herritarrak agentea (parte-hartzea bultzatu eta sustatzen dutenak) eta erakunde agenteak (baliabideak jarri eta proiektuari segurtasun-esparru bat ematen diotenak).*
- *Eta sarea koordinatu eta ezagueraren transferentzia eta proiektuentzako gutxieneko laguntza bermatzen ditu(zt)en nodoa edo nodoak. Nodo koordinatzaile(a)(e)k sarearen gutxieneko egiturari eusten dio(te)n bitartean, proiektuei lotutako nodoak sartu eta irteten dira, eta haien aktibitatea handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. >>*

Iritzi eta ikuspegi hauek batu dira eztabaidan:

- Nodo koordinatzaile bat baino gehiago egin behar da, hots, lurraldean koordinatu eta ezaguera zabaltzen duten nodo asko.
- Nodo bat ezin da proiektu bat izan, agente bat da, berrikuntza sortu eta ikaskuntza horiek sarean transferitu eta partekatzeko konpromisoa hartzen duena, I-labek baliabideak eskaintzearen truke. Aldi berean, nodoak (agenteak) proiektuak abiaraz litzake I-labean esparruan esperimintatu eta, haiek bai, herritarren, erakundeen eta adituen parte-hartzea izateko baldintza bete dezaten. Era egonkor eta jarraituan berrikuntza sortzen duen agentea da nodoa, eta proiektuek, aldiz, denbora mugatu batean sortzen eta transferitzen dute berrikuntza.
- Honela defini liteke I-lab: proiektuen eta ekimenen bitartez parte-hartzean berritzen duten agenteen sare bat; nodoak, aldiz, honela: topaguneak, zeinetan berritu eta eraikitzen den, zenbait agente elkartu eta berrikuntza sortzeko aktibatzen diren tokiak. (Beraz, aurreko ikuspegian ez bezala, ez da posible ikusten berrikuntza agente bakar baten bitartez sortu eta transferitzea. Berrikuntza sortzen duten zenbait agente elkartzen direnean gertatzen da).
- Adostasuna dago pentsatzeko nodo iraunkorrak eta aldi baterako nodoak egongo direla.
- Adostasuna dago eginkizunak definitzeko orduan:
 - Egitea
 - Koordinatzea eta transferitzea
 - Erabakiak hartzea (esparru estrategikoa, ikusi nor sartzen den eta nor ez, etab.)
- Lantzen diren gaiak administrazioak, herritarrek zein adituek bultzatu ditzakete.
- Beharrezko ikusten da esperimintazio-proiektuetan (ez topaguneetan) aurreko atalean definitutako 3 agenteak egotea (erakundeak, herritarrak eta adituak), xedea modu operatiboetan berritzea baita (baina pentsatzen da agente batek has dezakeela ekimena). I-labean ardura da 3 agenteak egotea bultzatzea, bestela ez baita berrituko.
- Nora jotzen du jendeak? Norekin jartzen da harremanetan elkarre bat?

2/ Sarea

Enunziatu hau hartu da abiapuntu:

<< I-labek nodoen arteko ezagueraren koordinazioa eta transferentzia bermatzen ditu teknikarien bitartez, zeinek sarea dinamizatu eta nodoen arteko topaguneak lortzen baitituzte.

Nodoen arteko komunikazio eta lankidetzaren horrek ezaguera transferitu eta ikaskuntzak ateratzea ahalbidetzen du baina, halaber, estrategia eta plangintza elikatzen ditu, lankidetzan, I-labaren beraren makro mailan. >>

Iritzi eta ikuspegi hauek batu dira eztabaidan:

- I-labek ezin du ezer bermatu, sareak berak dauzka kalitate-bermeak. I-labek "lortu" egiten du.
- I-labaren estrategia lankidetzan elikatu behar da.
- Norbaitek hartu behar ditu bere gain koordinatzeko eta transferitzeko lanak, hasiera batean behintzat, I-labek sare gisa diharduela bermatzeko.
- Esperientziek eta jakintzek elkarri lotuta egon behar dute, partekatzen ez badira hor geratzen direlako. Partekatzea aukera lehenetsi gisa.
- Talde teknikoak bermatzen du ikaskuntzen transferentzia. Kasu honetan bermatu egiten du.
- Nola erabakitzen da zer ekimen batzen diren? Nola iristen da erabaki hori I-lab entitatara?
- Apirilean martxan jarriko diren pilotuek orain lantzen ari garen alderdi batzuk definitzeko balioko digute:
 - Pilotuak izateko baldintzak
 - Konpromiso kodea
 - Ebaluazio-eredua
- Zein neurritan da I-lab berrikuntzaren behatoki bat edo tresna berritzaileak ematen dituen egitura bat?

3/ Baliabideak

Enunziatu hau hartu da abiapuntu:

<< I-labek nodoei laguntzen die, talde tekniko baten eta hornitzaile adituen sare baten bidez, zeinek ikuspegia, metodologiak, ezaguera, etab. ematen baitituzte, haien garapen ona eta sarean sartuta dauden proiektuen egiteko moduetako berrikuntza bermatzeari begira.

Halaber, I-labek dibulgazio eginkizuna ere betetzen du, herritarren parte-hartzearen arloko jardunbide berritzaileen inguruko jardunbide egokiak, ikaskuntzak eta kontakizunak irekian jarritz. >>

Iritzi eta ikuspegi hauek batu dira eztabaidan:

- Akonpainamendua, entzute, kontsulta edo alderaketa gisa ulertuta.
- 2. paragrafoak oso lotuta egon behar luke Open Eskolari, baita haren eginkizunari ere, ez bikoizteko.
- Ikaskuntzak ateratzeak jardunbide egokia gainditu behar luke, egindako akatsak ere zabaltzen saiatzea haiek ez errepikatzeke.

4 / I-laben eta Open Eskolaren arteko harremana

Enunziatu hau hartu da abiapuntu:

<< I-labek eta Open Eskolak elkarrekin lan egin eta koordinatuta osatzen dute elkar; Open Eskolak prestakuntzaren eta paketeen bildutako baliabide edo tresnen dibulgazioaren bidez parte-hartzearen kultura eskaini eta sustatzen duen bitartean, I-labek lagunduta esperimentatzeko esparru bat eskaintzen du. >>

Iritzi eta ikuspegi hauek batu dira eztabaidan:

- Open Eskolak herritarrak, teknikariak eta politikariak laguntzeko izan behar du; eta I-labek esperimentatu eta sortzeko.
- I-laben sortzen denaren kontsumitzaile nagusiak Open Eskolek izan behar lukete.
- I-labek tresnak ematen dizkie Open Eskolei, haiek erabil, zabaldu, hobetu... ditzaten; eta Open Eskolek, euren harrobian proposamen berritzaileak hautematen dituztenean, I-labi transferitzen dizkiote bertan garatzeko.
- Open Eskola I-laben baliabide bat izan liteke.
- I-labek prestakuntza dispositiboak izan behar lituzke, Open Eskolak daukanez gain, beste formatu batzuk, hala nola praktika eta ikaskuntzako komunitateak.